

DONOSTIAN EUSKARA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2036)

D-AROA



AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
1.1 Euskararen araubidea	
1.2 Donostiako Udalaren ibilbidea	
2. DONOSTIAN EUSKARA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (D-AROA) EGITEKO PROZESUA	5
2.1 Donostiako datu demolinguistikoen bilakaeraren prospekzio-ikerketak	
2.2 Donostiako Euskararen Plan Orokorraren (2020-2024) ebaluazioa	
2.3 Donostiako euskararen egoeraren etorkizunari buruzko hausnarketa-prozesua	
2.4 Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoaren (D-AROA) diseinua	
2.5 Hausnarketa eta diseinua egiteko sortutako egiturak	
2.6 Lan-prozedura	
3. AROA, EUSKARA INDARBERRITZEKO ETA EUSKALDUNAK AHALDUNTZEKO MARKO ESTRATEGIKOA	10
4. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	13
4.1 Gobernantza	
4.2 Ezagutza – gaitasuna	
4.3 Erabilera – elkarreragina	
4.4 Jarrerak -motibazioak	
5. LAN-ILDO NAGUSIAK	16
6. ARLO ESTRATEGIKOA	17
7. ARLO OPERATIBOA	18
8. EREMU SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERAKO BERARIAZKO LANKETAK	23
8.1 Ekialdeko Barrutia	
8.2 Igeldo eta Añorga	
9. PLANAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA	25
9.1 Zeharkakotasun, koordinazioa eta lankidetzak	
9.2 Genero berdintasuna zeharkako ardatz	
9.3 Plan bizia	
9.4 Jarraipenerako adierazleak	

1. SARRERA

Euskarak XX. mendearen bigarren zatian izan duen bilakaera positiboa nabarmena izan da. Izan ere, euskal gizarteak eta erakundeek egindako ahaleginari esker, azken lau hamarkadotan goranzko bidea egin du euskararen komunitateak: Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) euskaldunen kopurua eta ehunekoa bikoiztu egin da. 1981ean 450.000 euskaldun izatetik, 940.000 izatera igaro da. Donostian, 2021eko erroldako datuen arabera, 83.866 euskaldun daude eta 38.337 ia euskaldun, hau da, biztanleen bi herenek euskara hitz egin edo ulertzen dute.

Meritu handiko ibilbidea egin da esparru askotan: hezkuntza-sistemari eta euskaltegiei esker euskal hiztunen kopuruaren hazkundera, euskara batua finkatzea, euskararen normalizazioaren gaineko lege garapena, administrazioan euskaraz hitz egiteko gai den langile-kopurua, euskara zerbitzu-hizkuntza ez ezik lan-hizkuntza ere izateko aurrerapausoak administrazioan, hedabideen sorrera eta hedapena, aisialdia eta lan-mundua euskalduntzeko esperientziak...

Arlo horietako batzuetan asko aurreratu bada ere, azken aldiaren zenbait joerek erakusten dute euskararen indarberritze prozesua moteltzen ari dela: arnaguneetan euskararen erabilera jaisten ari da, euskal hiztunak irabazi bai baina askok ez dute euskaraz hitz egiteko behar besteko erraztasunik (horrek erabileran duen eragin zuzenarekin), transmisioak ere ez du bilakaera positiborik, administrazio batzuetan eta lan-munduan ere ez da behar adina aurreratu...

Beste arlo batzuetan bezala, euskaren bilakaeraren joera aldaketa horretan eragin dute, besteak beste, globalizazioak (kontsumo ohituren aldaketa, gizartea gero eta indibidualizatuagoa izatea...) edota demografian gertatutako aldaketek, bereziki, jaiotze-tasa jaistean eta migrazio-fluxuen eraginez. Egoera horri gaineratu behar zaio azkenaldian hantzen udal-administrazioen aurka azaleratzen ari diren kontrako epaien eraginez, orain arteko prozesuan atzera egiteko dagoen arriskua, nahiz eta gizartearen gehiengoak euskararen aldeko jarrera erakusten duen.

Argi dagoena da orain artean egindakoarekin bakarrik ezin dela euskararen biziberritze-prozesuan aurrera egin, eta aro berri bati ekiteko unea iritsi dela. Datozen 25-30 urteko ziklo berrirako euskara biziberritzeko balioko duten estrategiak eguneratu eta birpentsatu behar dira.

1.1 Euskararen araubidea

Orain arteko bilakaera positiboa ahalbidetu dute, besteak beste, hamarkada hauetan onartu diren arauak. Hauek dira nagusiak:

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.
- Hezkuntza arloan, aipagarriak dira Hizkuntza-ereduen Dekretua (1983), Hezkuntza Publikoaren Euskal Legea (1993), Etengabeko Ikaskuntzari buruzko Legea (2016) eta 17/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko

Hezkuntzarena. Euskara helduaroan ikasteko eskubidea bermatzeko, HABE sortzeko Legea (1983) ere aipatu behar da.

- Komunikabideen alorrean, batetik, Irrati eta Telebistaren Euskal Legea (1982); eta, bestetik, Tokiko irrati- eta telebista-lizentziak emateko Dekretua (2011).
- Eremu sozioekonomikoan, 2003ko Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen Estatutua, horren garapena den Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko Dekretua (2008), eta 2003ko Estatutua ordezkatzera datorren 4/2023 Legea, apirilaren 27koa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuarena.
- Administrazioa eta zerbitzu publikoen alorrean ere arau ugari bideratu dira: 11/2022 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena (2022); 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko, eta administrazioa euskalduntzeko ibilbidea ahalbidetu duen 86/1997 Dekretua ordezkatu duena; 297/2010 DEKRETUA, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- Tokiko entitateei zuzendua bereziki 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa zein lege hori garatzen duen 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa, besteak beste.

1.2 Donostiako Udalaren ibilbidea

Testuinguru horretan eta aipatutako araubidea oinarri harturik, Donostiako Udalak hizkuntza-politikan oinarri eta gidari izan diren ordenantza eta zenbait plan onartu eta garatu ditu azken hamarkadetan:

- Donostiako Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak, 1991ko maiatzaren 9an Donostiako Udaltzako onartua.
- Donostiako Udalak 2023-2027 epealdirako onartutako Gobernu Programan jasotako hizkuntza-politikari buruzko ardatzak.

Hiriari begira:

- Euskararen Ekimen Estrategikoak – Donostiako Plan Orokorra (2001-2011).
- Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2011-2015.
- Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2015-2019.
- Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2020-2024.

Udal Administrazioari begira:

- Donostiako Udaleko VII. Euskararen Erabilera Plana (2023-2027). Segida kronologikoari dagokionez, Donostiako Udalak landu duen bosna urteko zazpigarren plana da hau.
- Donostiako Udalean eta bere erakunde autonomoetan hizkuntza ofizialek erabiltzeko irizpideak

2. DONOSTIAN EUSKARA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (D-AROA) EGITEKO PROZESUA

2024ko udazkenean, azken planaren indarraldia amaitu aurretik (Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2020-2024), balorazioa egiteari eta egun Donostiak duen egoera soziolinguistikoa aztertzeari ekin zion Udaleko Euskara Zerbitzuak.

Laburbilduz, hauek izan dira plana diseinatu eta dokumentu hau osatzeko egin diren urratsak:

2.1. Donostiako datu demolinguistikoaren bilakaeraren prospekzio-ikerketak (2036 epemuga)

Diagnostikoaren lehen oinarri gisa, ezinbestekotzat jo zen Donostiako egoera soziolinguistikoaren eta demografikoaren argazki bat egitea; hau da, datu nagusien bilketa eta horien azterketa egitea. Eta horrekin batera, baita datozen urteetarako aurreikusten diren joera demografikoaren eta demolinguistikoaren irakurketa eta prospekzio bat egitea ere. Esate baterako, zein izango da 10 urteko epean Donostiak izango duen biztanle mota eta jatorria? Zenbat euskal hiztun izango gara eta zein motatako hiztunak izango gara?

Azterketa hori egiteko enkargua Siadeco enpresari egin zitzaion. Proiektu horretan hiriaren iraganeko, gaur egungo eta etorkizuneko errealitate demolinguistikoari buruzko lanketa sakona egin da eta funtsezko informazioa ematen du lanak, Donostiako errealitate soziolinguistikoa interpretatzeko eta euskara biziberritzeko etorkizuneko plangintza-estrategiak bideratzeko. Besteak beste, hauek jasotzen ditu:

- 1991tik 2021era hirian gertatutako joera demolinguistikoak.
- 2036rako proiektzio demolinguistikoak: hizkuntza-ezagutza, lehen-hizkuntza eta etxeko erabilera.
- Etorkizuneko plangintzetarako orientabideak.

Lana garatzeko informazio iturri desberdinetara jo da, besteak beste: Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT), Espainiako Estatistika Institutua (INE), Donostia-data (Donostiako Udala), Euskararen Adierazle Sistema (EAS), Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza), Euskararen Kale Erabileraren Neurketak (Soziolinguistika Klusterra)...

Egoerak eta joerak aztertu eta horren arabera, hipotesi batzuk zehaztuta, egin dira proiektzio demografikoak eta demolinguistikoak. Metodologiaren inguruko xehetasunak [Donostiako datu demolinguistikoaren bilakaeraren prospekzio-ikerketak 2036 epemuga](#) txostenean ikus daitezke.

2.2. Donostiako Euskararen Plan Orokorren (2020-2024) balorazioa

Diagnostiko bat egiteko azken urteetan zer egin den eta egin den horrek zein emaitza izan dituen aztertzea ere ezinbestekoa da. Horrela, Euskara Zerbitzuko lantaldeak 2020-2024 epean gauzatutako ekintza eta jardueren irakurketa [kuantitatiboa](#) eta [kualitatiboa](#) egin du sektorez sektore.

2.3. Donostiako euskararen egoeraren etorkizunari buruzko hausnarketa-prozesua

Aurreko bi lanketa horiek ematen duten argazkia osatzeko ezinbestekotzat jo zen Donostiako eragile eta erakunde desberdinekin hausnarketa eta partaidetza prozesu bat bideratzea. Prozesu hori Elhuyar Aholkularitzaren laguntza teknikoarekin garatu da. 10 talde desberdin osatu dira, askotarikoak, genero-ikuspegia eta zeharkakotasuna kontuan izanik.

Talde horiekin egin diren ariketetan ondokoak landu dira: Donostiako euskararen etorkizunaz gogoeta egin, Donostiaren etorkizunaren argazki partekatua sortu, elkar entzuteko abagunea sortu eta elkarrekin Donostiaren etorkizunaz eztabaidatu, eta donostiarren eta Donostiaren misio, lehenetsunak eta etorkizuneko erronkak adostu, euskarari dagokionez.

Prozesu honek ere badu bere txosten propioa: [Donostiako euskararen egoeraren etorkizunari buruzko hausnarketa-prozesua](#).

2.4. Donostian Euskara Sustatzeko Plan estrategikoaren (D-AROA) diseinua

Behin diagnostikoa osatuta, euskara indarberritzeko eta herritarrak aktibatzeke datozen hamar urteetarako Donostian hizkuntza-politikarako gidari izango den plana diseinatzeari ekin zitzaion. Diseinu-fasean ere prozesu parte-hartzailea baliatu da, irekia, sentsibiltate eta eremu desberdinetako ordezkariak ateak zabaldu dizkiena eta genero-ikuspegia eta zeharkakotasuna kontuan izan dituen.

2024an Eusko Jaurlaritzak onartutako [AROA](#) marko estrategikoa hartu da lanketarako eredu modura, eta iraupenari dagokionez ere, AROAk aurreikusten duenari jarraitu zaio eta, beraz, urtez-urteko kudeaketa planen bitartez gauzatuko da, 10 urteko ikuspegiarekin jorrotutako D-AROA marko estrategikoa.

Bestalde, edukiari dagokionez, Donostiako Udalak 2023-2027 agintaldirako onartu duen Gobernu programan hizkuntza-politikaren inguruan jasotzen diren ildo nagusiak izan dira kontuan.

Diseinu fase honen helburuak honela laburbildu daitezke:

Helburu zehatzak

- Donostiako euskararen egoeraren etorkizunari buruzko hausnarketa prozesutik ateratako ondorioetatik, adostutako erronketatik eta lan-ildoetatik abiatuta, helburu estrategikoak erdiesteko ekimenak zehaztea.
- Donostiako errealitatea askotarikoa denez, plan estrategikoa Ekialde Barrutira lurreratzea, eta berariazko prozesua diseinatzea.
- Udaleko eragileek eta Donostiako hainbat eremutako eragileek nahiz interesa duten herritarrek AROA planaren diseinuan parte hartzea.

Zeharkako helburuak

- Prozesuan inplikaturako pertsonen euskararen egoeraren inguruko hausnarketa egitea eta egoeraz jabetzea.
- Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa modu kolektiboan eta adostuan egitea.

- Gizarteko sektore ahalik eta gehien inplikatzea eta parte hartuko duten eragile guztien artean harreman berriak sortzea; elkarlanerako aukera berriak eta sinergiak lantzeko bideak urratzea.
- Desberdinen arteko lankidetzatik, udalaren hizkuntza-politikaren aitzindaritza hartzea eta lidergoa partekatzea.
- Herritarrak, eragileak eta erakundeak aktibatzea eta proiektu partekatu baten parte izatea.
- Euskararen aktibazioan eragingo duten aliatuak topatzea eta euren arteko sarea sortzea.
- Iritziak, kezkak eta esperientziak trukatzuz, elkarrekin eta elkarrengandik ikastea, era berean, herritarren partaidetzarako metodologia, tresna eta teknikak eskuratuz eta lan-prozesuetan nahiz bitartekoetan eraginkortasunaren eta berrikuntzaren ikuspegia txertatuz.

2.5 Hausnarketa eta diseinua egiteko sortutako egiturak

Plan Estrategikoaren diseinurako honako egitura hauek osatu dira:

	TALDE ERAGILEA
Partaideak	<ul style="list-style-type: none"> • Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariak. • Donostiako Udaleko Euskara Zinegotzia. • Elhuyarreko aholkulariak.
Funtzioak	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesua antolatu eta koordinatu. • Taldeen osaera zehaztu. • Diseinu-taldeko saioak koordinatu. • Prozesuan zehar gertatzen diren arazoei irtenbidea bilatu. • Prozesua baloratu.

	DISEINU-TALDEA
Partaideak	<ul style="list-style-type: none"> • Donostiako gizarte-eragileak: euskalgintza, kultura, euskaltegiak, euskara-batzordeak... • Donostiako sektoreetako ordezkariak • Bestelako erakunde edo kolektiboetako ordezkariak • Donostiako Euskara Zerbitzuko teknikariak • Elhuyar Aholkularitzako teknikariak
Funtzioak	<ul style="list-style-type: none"> • Hausnarketa-faseak emandako emaitzaren irakurketa partekatua egin. • Donostiako Plan Estrategikoa diseinatzeko ekimenak, epeak eta arduradunak proposatu.

	EKIALDE BARRUTIKO DISEINU-TALDEA
Partaideak	<ul style="list-style-type: none"> • Ekialdeko Barrutiko gizarte-eragileak: euskalgintza, kultura, euskaltegiak, euskara-batzordeak, jai-batzordeak, kirol-elkarteak ... • Ekialdeko Barrutiko ikastetxeetako ordezkariak. • Ekialdeko Barrutiko ordezkari politikoak. • Donostiako Euskara Zerbitzuko teknikariak • Elhuyar Aholkularitzako teknikariak
Funtzioak	<ul style="list-style-type: none"> • Hausnarketa-faseak emandako emaitzaren irakurketa partekatua egin. • Donostiako Plan Estrategikoa oinarri hartuta, plana Ekialde Barrutira lurreratzeko ekintza zehatzak proposatu eta lehentasunak markatu.

2.6 Lan-prozedura

Modu argi batean irudikatzeko, honako hau izan da euskara sustatzeko ekintza-plana diseinatzeko eta garatzeko jarraitu dugun lan-prozedura:

	Aurrelanak	Diseinu-fasea (Donostia)	Diseinu-fasea (Ekialde Barrutia)	Emaizta	Itzulketak
ZER	2025eko udaberrian egindako hausnarketa-prozesua aintzat hartuta, planaren diseinuari ekiteko aurrelanak antolatuko ditugu.	Donostiako Plan Estrategikoa diseinatzeko diseinu-taldearekin bi lansaio egingo ditugu. Aurretik adostutako erronka eta lan-ildoak lurreratuko ditugu.	Donostiako Plan Estrategikoaren behin-behineko zirriborroa Ekialdeko Barrutira egokituko dugu.	Donostiako Plan Estrategikoaren behin-behineko dokumentua osatu.	Emaiztaren berri eman prozesuko partaideei.
NOLA	<p>Talde Eragilea (Donostia)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prozesua kokatu. • Kronograma adostu. • Diseinu-taldeak osatu. • Komunikazioa. • Diseinu-taldearen lehen saioa adostu. <p>Saioak antolatu</p> <ul style="list-style-type: none"> • Donostia mailako diseinu-taldearekin izango dugu lehen saioan prestatu. • Partaideei delaldiak egin. 	<p>Diseinu-taldea (Donostia)</p> <p>1. saioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prozesua kokatu. • Hausnarketa-faseko emaitza azaldu eta aztertu. • Hausnarketa-faseko ondorioak kontuan izan da, helburuak lortzeko ekimenak proposatu. <p>Diseinu-taldea (Donostia)</p> <p>2. saioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ekimen horiek garatzeko arduradunak eta epeak zehaztu. • Planaren garapenerako egituren gainean hausnartu. <p>Talde Eragilea (Donostia)</p> <p>Prozesuaren emaitza.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prozesua ebaluatu. • Aurrera begirako pausoak zehaztu. 	<p>Talde Eragilea (Ekialde Barrutia)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prozesua kokatu. • Ekialde Barrutiaren argazkia osatu. • Kronograma adostu. • Diseinu-taldeak osatu. • Komunikazioa. • Diseinu-taldearen lehen saioa adostu. <p>Diseinu-taldea (Ekialde Barrutia)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ekialdeko Barrutian berariaz landu beharreko ekimenak garatzeko, lehenetsunak finkatu eta arduradunak eta epeak zehaztu. • Planaren garapenerako egituren gainean hausnartu. 	<p>Behin-behineko DOKUMENTUA</p> <p>Planaren behin-behineko txostena osatu</p> <p>Talde Eragilea (Donostia)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Behin-behineko dokumentua kontrastatu. • Behin betiko plana osatu. • <u>Deboluzioa</u> nola egin adostu. • Prozesuaren balorazioa egin. 	<p>Donostia mailan diseinu-taldean parte hartu dutenei behin betiko planaren <u>deboluzioa</u> egin.</p> <p>Ekialde Barrutiko diseinu-taldean parte hartu dutenei behin betiko planaren <u>deboluzioa</u> egin.</p>
EMAITZA		Donostiako Plan Estrategikoaren behin-behineko dokumentua	Ekialde Barrutira planaren lurreratzea: berariaz landu beharreko ekintzak.	Donostia Udaleko behin betiko Euskararen Plan Estrategikoa	


3. AROA, EUSKARA INDARBERRITZEKO ETA EUSKALDUNAK AHALDUNTZEKO MARKO ESTRATEGIAKOA

AROA marko estrategikoak gizarte honen beharrei erantzun nahi die eta balio nagusi hauek ditu: adostua, egingarria eta eragingarria izatea. Hizkuntza-ekologiaren begiradatik aniztasuna kudeatzea: hizkuntza- eta kultura-aniztasuna.

Marko honen oinarrietako bat da justizia soziala eta gizarte-inklusioa erdiesteko aukerak eta baliabideak sortzea edo erraztea eta, horretarako, zeharkakotasuna, lankidetzeta eta parte hartze koordinatua lehenesten ditu.

Euskara ardatz duten politikak bultzatu nahi ditu AROAK eta horrek dakar konpromiso eta lidergo politikoak hartzea, hizkuntza-politikaren erronkak egitura guztietan aplikatzea, sailen arteko banaketak gainditu eta osotasuna oinarri izatea, lankidetzeta modu berrietan esploratzea...

Berrikuntzan, kudeaketa aurreratuan eta metodologia-malgutasunean oinarrituta, ondokoa da AROAK hizkuntza planifikaziorako proposatzen duen egitura:



Beraz, zazpi ardatz estrategikoren gainean lan egitea proposatzen du. Hona hemen horietako bakoitzaren deskribapen laburra:

1 Gobernantza

Kudeaketa koordinatuan, zeharkakotasunean eta erantzukizun partekatuan oinarritzen den gobernantza eredia proposatzen du eta, era berean, tokian tokiko beharrei lekua egingo diena. Euskara zerbitzuek edota euskalgintzak egingo duten jardunarekin batera, gizartearen esparru guztietatik eraldatu nahi da euskararen indarberritzea.

2 Jarrerak – Motibazioak

Euskararen aldeotasun edo kontrakotasun ideologikoaren gainean arreta jartzeari erantsiko diogun ariketa izango da hiztunek euskararekiko dituzten motibazioei begira jartzea. Hiztunaren motibo psikosozialetan arreta jarriz, hiztun bakoitzak dituen motibazio iturrien gainean lan egin nahi da, baita horiek eraldatu edo indartzen ere.

3 Ezagutza - Gaitasuna

Euskararen ezagutzari erreparatzeaz gain, hiztunen komunikazio gaitasunean jarriko da arreta. Komunikazio egoera ezberdinetan euskara dagokion eran baliatzeko gaitasunaz eta horretarako hiztunak dituen behar soziolinguistiko zein komunikatiboez aritzea esan nahi du horrek.

4 Erabilera - Elkarreragina

Erabilera kontzeptua zabalduz, hiztunen arteko elkarreraginean gertatzen diren egoera komunikatiboei begira jarriz eragitea proposatzen da: euskara ulertu edota erabiltzeko baldintzak, elkarrekintza egoeretako hizkuntzen arteko joan-etorriak, hiztunen arteko botere harremanen zer-nolakoak, hizkuntza ohiturak...

Horrez gain, aipatu ditugun ardatz estrategiko hauek osatzen duten sistema hori ondo sostengatzeko, kudeaketa-ardatz estrategiko hauek ere behar dira: Berrikuntza, Ikerketa–Sistematizazioa eta Komunikazioa-Hedapena.

5 Berrikuntza

Euskararen indarberritzean berrikuntza eginez gizarte osoarentzako onuragarri diren irtenbide berriak garatuko dira. Euskara ardatz duen berrikuntza esplorazio betean izango da eta gizarte eraldaketa sortuko du. Berrikuntza prozesuan baliatutako lankidetzaren ereduak, baliabideak eta sortutako galdera berriak eragingo dute irtenbide berrien sorkuntzan.

6 Ikerketa - Sistematizazioa

Ikerketaren egitekoa izango da euskararen bilakaeraren gaineko jarraipena egiteaz gain, Aroaren ardatzek dituzten jakintza beharrak elikatzea. Ezagutza berriaren gaineko ikerketa

prozesuan nahiz amaieran sortu diren praktika on eta arrakastatsuak sistematizatzeko estrategia lantzea izango da beste egitekoa.

7 Komunikazioa - Hedapena

Komunikazioaren barne dimentsioari arreta jartzeko ekimenak lantzeko ardatza da hau. Prozesuan zein amaieran. Norbanakoa, Eragile-taldea edo Komunitatea. Hiru elementu hauen arteko harremanetan eragingo da komunikazio eraginkorra lortzeko. Hedapenaren bidez, berriz, prozesuak eta emaitzak komunikatzeko estrategiak garatuko dira.

4. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Bigarren atalean azaldu dugun moduan, Donostiako egoeraren argazkia zein den jasotzeko, hainbat datu izan ditugu aztergai bide desberdinetatik jaso ditugunak. Hauek izan dira hiru bide nagusiak:

- Donostiako datu demolinguistikoen bilakaeraren prospekzio-ikerketak. Epe muga 2036 (Siadeco 2024).
- Donostiako Euskararen Plan Orokorraren (2020-2024) balorazioa (Euskara Zerbitzua)
- Donostiako Euskararen Egoeraren Etorkizunari buruzko hausnarketa prozesua (Elhuyar-Euskara Zerbitzua)

Laburbilduz, ondokoa da diagnostiko orokorra¹ AROaren lau ardatz estrategikoen arabera antolatuta. Kudeaketa ardatzak ez dira kontuan izan diagnostikoaren edukia antolatzeko garaian, izan ere, ardatz estrategikoen erronkak lortzen laguntzeko tresnak baitira batez ere kudeaketa ardatz horiek.

4.1 Gobernantza

- Globalizazioaren aro honetan, gizartea gero eta homogeneousagoa da, eskubide indibidualak gainerako eskubideen gaineratik daude, eta, besteak beste, hizkuntza-komunitateen eskubideak indarra galtzen ari dira.
- Orain arteko joeretan oinarrituta egindako proiektio demografikoaren arabera, Donostiako biztanleria gero eta zaharragoa izango da (45 urtetik gorakoak %57,2; horietatik erdiak 65 urte baino gehiagokoak).
- Migrazio-fluxuak ez du etenik izango. Aipatu proiektio demografikoaren arabera, jatorria eta adina gurutzatuz, 25-44 urtekoen artean, %40 izango da atzerrian jaiotakoa, guraso izateko adinean dagoen biztanleria, hain zuzen.
- Kultura- eta hizkuntza-aniztasunak gora egiten jarraituko du.
- Ingurune digitalak pertsonen harremanak ugartu eta aldatu egin ditu, eta ingurune naturala nagusiki gaztelaniaz eta ingelesez da.
- Gaur egungo gazteak bi hizkuntza erraldoi horiez inguratuta daude eta inguratuta ez ezik, gazte horien eguneroko bizitzan dago gaztelania, hiztun aktibo dira, eta ingelesa ere zenbait errutinatan gutxienez erabiltzen dute. Eta haien imaginario kolektiboa elikatzen dute biek.
- Donostiako Euskalgintza osatzen duten eremu instituzionalaren eta gizarte eragileen arteko harremana eta elkarlanari garrantzia ematen zaio eta proiektu ugari lantzen dira elkarlanean (Donostiako Udala – Bagera – Auzoetako euskara-batzordeak – Euskaltegiak). Halaber, gainerako instituzioekin ere elkarlanerako bideak garatu ditu, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzarekin.

¹ Diagnostikoaren xehetasunak goian aipatutako dokumentuetan eskura daitezke.

- Tokiko euskarazko hedabideek euskara sustatzeko ekarpena egiten dute, eta Udalak diruz laguntzen ditu. Edonola ere, euskarazko hedabideen kontsumoa sustatzeko zailtasunak antzematen dira.

4.2 Ezagutza – gaitasuna

- Euskararen ezagutzak etengabe egin du gora azken hamarkadetan Donostian. Azken urteetan, baina, hazkunde erritmoa moteldu egin da eta proiektzio demolinguistikoaren arabera, hazkunde erritmo horrek moteltze joera izaten jarraituko du. Proiektzio horren arabera, 2021ean %46,7 ginen euskaldunak eta 2036an %52,9 izango gara. Halaber, ia-euskaldunen pisuak behera egingo du.
- Euskararen gaitasun erlatiboari dagokionez, berriz, Donostiako euskaldunen artean gero eta gehiago dira erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnak. 1991n, donostiar euskaldunen %53,5 zen euskal elebiduna edo elebidun orekatua eta 2021ean %47,1. Etorkizunera begira ere joera hori izango dela aurreikusten da.
- Hiriko ikastetxeetan, D ereduan ikasten ari den ikasleen kopurua hazi egin da, baina hazkunde-erritmoa mantsotuz doa azken urteetan. Gaur egun, Donostiako ikastetxeetan ikasleen %70 D ereduan ari da ikasten, maila guztiak kontuan hartuta. A eta B ereduetan, berriz, %15na bakoitzean.
- Donostiako Udal Administrazioan langileen %87k lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dauka eta %7k dagokiona baino bat gutxiago. Arduradun tekniko zein politikoen %75 euskaraz hitz egiteko gai da.
- Donostiako kale-mailako 1.500 establezimendu baino gehiago (Donostiako heren bat) Euskaraz barra-barra egitasmoan parte hartzen ari dira; hau da, zerbitzua euskaraz emateko gai dira.
- Helduen euskalduntze-alfabetatze zentroetako (euskaltegiak) matrikulazio-kopuruak ez du gora egiten eta tokiko eskari potentzialarekiko zentro hauen erakarpen maila apala da. Joera aldaketa bat sumatzen da ikasmailetan: maila baxuetako ikastaroen eskaria handiagoa da azken urteetan.
- Biztanleria euskalduna zahartze-prozesuan sartuko da. 2021eko datuen arabera, Donostiako euskaldunen artean, 45 urtetik gorakoak %36 dira eta 45 urtetik beherakoak %63. 2036rako proiektzioak, berriz, dio 45 urtetik gorakoak %45 izango direla eta 45 urtetik beherakoak %55.
- Datozen urteetako migrazio-mugimenduek atzerrian jaiotako biztanleriaren euskalduntze-prozesua moteldu egingo dute eta gazteen adin tarte batzuetan jaitsi egingo da euskararen ezagutza.

4.3 Erabilera – elkarreragina

- Azken urteetako datuek diote euskara lehen-hizkuntza gisa transmititzeak geldialdia izan duela eta beheranzko joera izango duela etorkizunean, baina baita gaztelaniaren transmisioak lehen-hizkuntza bakar gisa ere.
- Euskararen eta gaztelaniaren aldibereko transmisioa pixkanaka hazi egin da eta lehen-hizkuntza gisa euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuen

transmisioa ere nabarmen hazi da, eta hori izango da, proiektzioen arabera, etorkizuneko errealitatea ere.

- Gauzak horrela, beste hizkuntza batzuekin gero eta bizikidetzat handiagoa izateak erabilera-ohiturei ere eragingo die.
- Etxeko hizkuntza nagusia euskara duen biztanleria areagotu egin da, baina hazkuntza-erritmoa motelduz. Aldiz, etxeko hizkuntza nagusia euskara eta gaztelania ez den beste bat duen biztanleria hazi egin da pixkanaka.
- Proiektzioen arabera, etxean euskara bakarrik erabiltzen dutenen pisua mantendu egingo da, baina gorakada izango du euskara eta gaztelania, bi hizkuntzak, erabiltzeko joerak. Euskara eta gaztelania ez diren hizkuntzak erabiltzeko ohiturak ere gora egingo du, baita EAEn jaiotako artean ere.
- Gero eta txikiagoa izango da lehen-hizkuntza euskara dutenen eta etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenen arteko distantzia. Aldiz, gero eta handiagoa izango da euskara ezagutzen dutenen (baina lehen hizkuntza ez dutenen) eta etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenen arteko distantzia
- Euskararen kaleko erabilera geldirik dago azken hamarkadetan eta gazteen kasuan beheranzko joera hartu du.
- Udal Administrazioan barne-harremanetako ahozko zein idatzizko komunikazioetan euskara gero eta gehiago erabiltzen da: idatzizkoetan %60 euskaraz edo ele bietan egiten da eta ahozkoan %40 (2023ko neurketa).
- Euskara dakiten donostiarrek hainbat zailtasun dituzte euskara erabiltzeko garaian: ulermena unibertsalizatua ez egoteak zailtasunak sortzen ditu euskara erabili nahi dutenentzat; mundu digitala gaztelaniaz edo ingelesez da; ingurune soziala eta aisialdia gaztelaniaz dela nagusiki irizten dute askok eta euskarazko aisialdia bermatua egotearen beharra (arnasgune funtzionalak falta dira).

4.4 Jarrerak – motibazioak

- Eusko Jaurlaritzak 2022an egindako ikerketaren arabera, gizartearen gehiengoa euskararen alde dago. Haur guztiek euskara ikasi beharko luketela iritzi du gizartearen % 89,3k, eta Administrazioan sartzeko euskara jakin beharko litzatekeela % 74,7k. Hala ere, beste administrazio asko bezala, Donostiako Udalak ere epaitegietan ditu zenbait langilek administrazioan lan egiteko euskara eskatzearen kontra jarritako errekurtsoak.
- Euskara ikasteko edo euskarara hurbiltzeko motibazioak askotarikoak dira: kulturala (bertako kultura ezagutzeko jakin-mina, kultur komunitate horretan parte hartzeko gogoia...), komunikatiboa (euskara ulertzeko gaitasuna eskuratzea, hirian dauden ekimenetan parte hartzeko aukera izatea...), funtzionala (lan-mundurako sarbidea), emozionala (hurbileko ingurune euskalduna izatea, identitate eta nortasunarekin lotutakoa, hizkuntza gutxituekiko sentsibilitatea...).
- Euskarara ez hurbiltzeko zailtasunak ere ageri dira: hizkuntza zaila denaren aurreiritzia, euskara ikasteko baldintza eta aukerak nahikoa ez izatea, derrigortasunarekin lotzen dute zenbaitek...

5. LAN-ILDO NAGUSIAK

Datozen orrietan ardatz estrategiko bakoitzak dituen erronkak eta lan-ildoak zehazten diren arren, diagnostikoan ondorioztatzen denaren arabera, hauek izango lirateke Donostian euskararen biziberritze prozesuan aurrera egiteko lehenetsi beharreko lan-ildoak:

– **Euskal hiztun osoz osatutako hiztun-komunitate sendoa**

Hiztun-komunitate sendo bat funtsezkoa da hizkuntzaren normalizazioan aurrera egiteko. Horregatik, euskararen gaitasuna hobetzea eta euskal hiztun osoak sortzea behar-beharrezkoa izango da; hau da, erabileran aurrera egin nahi bada, euskaraz gaztelaniaz bezain ondo edo hobeto moldatuko den hiztun komunitate sendoa behar dugu.

– **Familia bidezko transmisioa**

Ildo horretatik, euskara lehen-hizkuntza gisa eskuratzen bada, aukera handia dago hizkuntza horren ezagutza handia izateko eta ondoen menderatzen den hizkuntza izateko. Hortik ondorioztatzen da euskararen familia bidezko transmisioa sustatzeak duen garrantzia.

– **Arnasgune sozio-funtzionalak**

Soziolinguistikaren arauetako bat da hizkuntza batek bizirik iraungo badu, hizkuntza hori nagusitasunez (funtzio guztiak betez) erabiliko den espazioak/eremuak behar dituela. Hau da, hizkuntzek, oro har, eta are gehiago hizkuntza gutxituek arnasguneak behar dituzte, bai geografikoak eta baita funtzionalak ere. Beraz, Donostian arnasgune hauen beharra ere nabaria da euskararen biziberritzean aurrera egingo badugu.

– **Hizkuntza politika eta migrazio politika bat eginik**

Migrazio fluxuek ez dute etenik izango eta lan adinean dauden pertsona migratzaile asko iritsiko dira Donostiara datozen urteetan. Etorri berriak hizkuntza politikaren erdigunera ekarri eta euskarara hurbiltzeko bideak bilatzea eta neurriak hartzea ezinbestekoa izango da.

– **Euskararen ulermena orokortzeko beharra**

Ezagutza edo ulermena orokortzen jarraitzea, behintzat, ezinbesteko erronka izango da, hizkuntza ofizialak erabiltzeko garaian, hizkuntza-aukeraketa berdintasunezko baldintzetan egin nahi badugu. Horretarako, euskararekiko motibazio estimulagarriak sustatzea gakoa izango da, kontzientzia-hartzea eragingo luketenak, euskara ikasteko eta euskararen erabilera asegarria egiteko.

6. ARLO ESTRATEGIKOA

Marko estrategiko batek oinarri sendoa behar du, gaur egungo egoera eta etorkizunean izan nahi dena jasoko dituen. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak AROA diseinatzeko osatu zuen lantaldeak euskara biziberritzeko marko estrategiko honen nahia, misioa eta ikuspegia nola zehaztu zituen jasotzen da atal honetan.

2026-2036 epealdirako adostutako **NAHI ESTRATEGIKOA:**

Gure testuinguru eleaniztunean, euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzea, gizarte ekitatibo eta justua eraikitze helburuz.

Aroaren testuingururako, hiztun aktiboa da modu aktiboan euskararen erabilera sustatzen duena. Hiztun aktiboak bere hizkuntzaren egoeraren kontzientzia dauka, hautu soziolinguistikoa egina dauka, ahalduntze prozesua egiten ari da, eta bere portaeretan ezaugarri hauek ditu: euskara lehenesten du edozein dela ere harremana edo egoera, euskaraz hitz egin dadin beharrezko diren baldintzak sortzen ditu (lehen hitza euskaraz, euskaraz egitera gonbidatu, ulerrizketarako jarrera izan...)

Aroaren testuingururako, hiztun ahaldundua da erabilera-harreman asertibo eta enpatikoak sortzen dituen. Edozein dela ere gaitasun maila edo hizkuntza ohitura, erabilera bermatua izateko baldintzak sortzeko prozesu psikosoziala egina du edo egite bidean da.

Honako hau da, berriz, planaren **MISIOA:**

Kultura soziolinguistikoa berria eraikitzea eta zabaltzea.

Gure gizarte osatzen duten eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datorren hamarkadarako, euskal hiztunak sortu eta ahalduntzeko zein euskararen komunitatea sendotzeko, eta munduko hizkuntza-aniztasunaren baitan gizarte justuago, ekitatiboago eta inklusiboago eraikitzen laguntzeko.

Aldian-aldian ebaluatua eta egokitua izanik, metodologia parte-hartzaile eta berritzailea baliatzea, gizarte eragileekin eta mugimendu sozialekin elkarlanean.

Eta, azkenik, **IKUSPEGIA.** 2036. urtean gaude eta...:

- Euskararen transmisioa ziurtatuta dago.
- Euskal hiztun aktibo gehiago ditugu gizarte esparru guztietan.
- Ezagutzaren unibertsalizazioan aurrerapausoak eman dira.
- Euskaratik urrun zeuden herritarrak zein gurera iristen ari diren herritarrak euskarara hurbiltzen ari dira.
- Gizartean behar handienak dituzten herritarrei behar bezalako babes, laguntza eta erraztasunak ematen zaizkie, eta euskara haiena ere badela sentitzen dute.
- Euskaraz bizitzeko aukera zabalagoak daude; babesgune gehiago ditugu.
- Arnasguneen beheranzko joera eten egin da.
- Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa dute.
- Ingurune digitalean euskarazko edukien eskaintza eta kontsumoa hazi egin da.

7. ARLO OPERATIBOA

Arlo estrategikoa zehaztu ondoren, marko estrategikoaren arlo operatiboa diseinatzeko unean, AROAk bost maila edo kategoria zehazten ditu edukiak modu antolatuan aurkezteko. Donostiako Euskararen Plan Estrategikoa diseinatzeko ere, eredu edo egitura bera erabili da, plana modu antolatuan eta konparagarrian garatu ahal izateko.

Ardatz estrategikoak

Ardatz estrategikoek hizkuntza-politikaren azken helburuak zehazten dituzte, hemendik 2036ra arte lortu nahi den ikuspegia garatzeko. Ardatz estrategikoek strategiaren eremu nagusiak deskribatzen dituzte, eta erronken definizioa inspiratzen dute. Erronka horiek epe ertainean bete beharreko konpromiso espezifiko batzuk adierazten dituzte.

Erronkak

Erronkek lortu nahi diren lorpenak adierazten dituzte, eta epe ertainerako konpromiso-maila espezifiko bat adierazten dute. Erronkak "lortu" behar denari zuzenduta daude, eta ez "egin" behar denari.

Lan-ildoak

Lan-ildoak ardatz estrategikoak xehatzen dituzten dimentsio tematikoak dira, eta erronkak gai zehatzen arabera antolatzen laguntzen dute.

Ekimenak

Ekimenak jarduera-proiektuak edo -programak definitzeko balio duten eragiketa edo ataza multzoak dira. Ekimenak garatzeko ekintzak, hau da, proiektu edo programa zehatzak definitu behar dira.

Ekintzak

Aurreko puntuan azaltzen den moduan, ekimenak jarduera-proiektuak edo programak definitzeko ataza-multzoak dira eta lurreratzeko ekintzak behar dituzte. Ekintzak dira plangintza batek dituen helburuak betetzen joateko azken maila.

Jarraian jaso ditugu Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoaren ardatz bakoitzeko erronkak, lan-ildoak eta ekimenak, baita erronka horiek erdiesteko garatzea aurreikusten den ekintza-kopurua ere. Ekintza bakoitzaren definizioa eta azalpena dokumentu honen eranskinetan jaso da. Hau da, ondorengo tauletan ekimen bakoitzaren aldamenean aipatzen den ekintza bakoitzaren azalpena jasotzen da eranskinean.

7.1 Ardatz estrategikoa: GOBERNANTZA

	ERRONKA	G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.	
	Lan-ildoa	G.1.1. Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu	
	Ekimena	G.1.1.2. Erakunde publiko eta pribatuekin lan egin herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eginbeharrez jabe daitezen.	5 ekintza
Lan-	Lan-ildoa	G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.	
	Ekimena	G.1.2.1. EAEko administrazioen artean zein administrazio bakoitzaren barruko sail edo atalen artean elkarlana bultzatu.	3 ekintza
	Ekimena	G.1.2.3. Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu.	5 ekintza
	ERRONKA	G.2. Berriazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.	
	Lan-ildoa	G.2.1. Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatu.	
	Ekimena	G.2.1.2. Bilakaera demografikoak dakartzan hizkuntza-erronkei aurre egiteko, tokian tokiko estrategiak landu eta ekimenak bultzatu.	1 ekintza
	Lan-ildoa	G.2.3. Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik	
	Ekimena	G.2.3.4 Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasle, ikasleak, familia...) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatuz, komunikazio-esparruak zabalduz.	5 ekintza
	ERRONKA	G.4. Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.	
	Lan-ildoa	G.4.1. Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen eskaintza eta kontsumoa areagotzeko estrategiak garatu	
	Ekimena	G.4.1.1. Ingurune digitalean euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalak ziurtatu, software eta eduki libreei arreta berezia eskainiz.	2 ekintza
	Ekimena	G.4.1.3. Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen kontsumoa areagotzeko zabalkunde estrategia egokiak diseinatu eta gauzatu.	3 ekintza
	Lan-ildoa	G.4.2. Arlo digitaleko era guztietako enpresa eta erakundeekiko harremanak ahalbidetu eta aliantzak landu.	
	Ekimena	G.4.2.1. Euskararen estrategia digitala garatzea ahalbidetuko duen ordezkartza bideratu.	2 ekintza

7.2 Ardatz estrategikoa: JARRERA ETA MOTIBAZIOA

ERRONKA	JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.	
Lan-ildoak	JM.1.1. Euskaldun izatearen kontzientzia eragin.	
Ekimena	JM.1.1.1. Euskaldunen hizkuntza-eskubideen gaineko kontzientzia areagotu.	2 ekintza
Ekimena	JM.1.1.2. Euskal identitate askotarikoek euskararekin duten lotura aztertu eta estrategiak landu.	1 ekintza
Ekimena	JM.1.1.3. Euskara ikasteko, erabiltzeko eta transmititzeko motibazioak landu, bereziki zainduz harreman eta lagunarte berriak sortzen diren uneak.	3 ekintza
Lan-ildoak	JM.1.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu.	
Ekimena	JM.1.2.2. Eskaintza eta eskaera aktiboak eta jarrera proaktiboak bultzatu administrazioan, arlo sozioekonomikoan eta herritarren artean.	6 ekintza
Lan-ildoak	JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.	
Ekimena	JM.1.3.1. Euskara biziberritzeko arrazoiak landu eta gizarteratu.	1 ekintza
Ekimena	JM.1.3.3. Motibazioa landu, besteak beste, kulturaren bitartez, kultur hartzailea zein sortzailea izatea bultzatuz	8 ekintza
Ekimena	JM.1.3.4. Euskal komunitatearen ikusgarritasuna bermatzeko estrategiak diseinatu eta garatu.	2 ekintza
Ekimena	JM.1.3.5. Euskal kulturaren dimentsioa kontuan hartzen dituzten edukia eta baliabideen sorkuntza eta kontsumoa bultzatu	3 ekintza
ERRONKA	JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.	
Lan-ildoak	JM.2.1. Euskaldunen komunitatea sendotu.	
Ekimena	JM.2.1.1. Komunitatearekiko atxikimendua lortzeko eta komunitatearen parte izateko bideak aztertu eta estrategiak landu.	3 ekintza
Lan-ildoak	JM.2.4. Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri.	
Ekimena	JM.2.4.4. Atzerritar jatorriko herritarrentzako harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu.	1 ekintza

7.3 Ardatz estrategikoa: EZAGUTZA ETA GAITASUNA

ERRONKA	EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.	
Lan-ildoak	EG.1.2. Familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri.	
Ekimena	EG.1.2.1. Familia-transmisioari lotutako proiektuen iraunkortasuna bermatu, erakundeetako hizkuntza politika sistematizatuz.	6 ekintza
ERRONKA	EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.	
Lan-ildoak	EG.2.1. Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu.	
Ekimena	EG.2.1.1. Euskara testuinguru askotarikoetan erabiltzeko ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak bultzatu.	2 ekintza
Ekimena	EG.2.1.4. Estrategia berriak landu ahozketasunean aurrerapenak eragiteko.	
Lan-ildoak	EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.	
Ekimena	EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta beharrendaren arabera eskaintzak sortu.	5 ekintza
ERRONKA	EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.	
Lan-ildoak	EG.3.1. Atzerritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.	
Ekimena	EG.3.1.1. Ikaskuntza prozesuak errazteko baliabideak sortu eta eskaini.	11 ekintza
ERRONKA	EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu.	
Lan-ildoak	EG.4.3. Helduak euskalduntzeko eskaintza egokitu dauden egoera	
Ekimena	EG.4.3.1. Ikasleen helburuak kontuan hartuta, euskara ikasteko orduan komunikagarritasunean oinarria duten metodologia eta baldintza egokiak garatu.	1 ekintza

7.4 Ardatz estrategikoa: ERABILERA ETA ELKARRERAGINA

ERRONKA	EE.1.Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.	
Lan-ildoak	EE 1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu	
Ekimena	EE.1.1.3. Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.	15 ekintza
Ekimena	EE.1.1.5. Aisialdi antolatua eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu.	11 ekintza
Ekimena	EE.1.1.7. Euskarazko hedabideak bultzatu.	7 ekintza
Ekimena	EE.1.1.10. Bereziki 16 urtetik beherako gazteak lehenetsi euskararen erabilera sustatzeko esku-hartzeak diseinatu eta garatzerakoan.	6 ekintza

7.5 Ardatz estrategikoa: BERRIKUNTZA

ERRONKA	B.1.Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu	
Gizartea aldatzen ari den neurrian, euskararen indarberitze prozesua bera ere aldatzea dagokigu. Une honetan erronka sozialei ezin zaie iraganeko parametroetatik erantzun, eta euskararen kasuan era irtenbide berriak eskuratzeko beharra daukagu. AROaren bidez, gaur egun dauzkagun eta aurrerago etorriko diren erantzun berritzaileak emateko bidea egin nahi dugu, espero gabekoari ere leku eginez.		
3 ekintza		

7.6 Ardatz estrategikoa: IKERKETA ETA SISTEMATIZAZIOA

ERRONKA	IS.1.Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.	
Euskararen indarberitzearen gaineko prozesu osoak, bere horretan, ikerketaren beharra dauka. Proba eta esplorazio betean dabilen hizkuntza komunitateak beharrezkoa du gertatzen ari denaren gaineko kontzientzia zientifikoa izatea eta jakintza horietatik berritzen jarraitzea.		
3 ekintza		

7.7 Ardatz estrategikoa: KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA

ERRONKA	KH.1.Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu	
Aroan proposatu diren erronka, lan-ildo eta ekimenen egitekoa gauzatzea bezain garrantzitsua izango da ondo komunikatu eta gizartean hedatzea. Komunikazio strategiaren egitekoa ere bada euskararen eta euskal kulturaren balioa indartzea, eta euskarazko produktuen eskaintza eta kontsumoa sendotzen laguntzea.		
2 ekintza		

8. EREMU SOZIOINGUISTIKOAREN ARABERAKO BERARIAZKO LANKETAK

8.1 Ekialdeko Barrutia

Plan honen lan-ildoetako bat da eremu soziolinguistikoaren arabera hizkuntza politikak garatzea. Hau da, berariazko esku-hartzeak egitea aurreikusten da eremu geografiko edo funtzionalen egoera eta ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta.

Gauzak horrela, Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa diseinatzeko prozesu honetan Ekialdeko Barrutian berariazko lanketa egin da: 2025eko udaberrian hausnarketa-saio bat egin zen bertako eragileekin eta udazkenean bi saio, berariazko esku-hartze eta ekintzak zehazteko.

Lanketa honen helburua ez da izan bi Plan Estrategiko egitea, baizik eta Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa Ekialdeko Barrutira lurreratzea. Izan ere, Donostiako Plan Estrategikoan jasotako hainbat ekintza Ekialdeko Barrutian eta gainerako auzoetan abian jarriko direnak izango dira.

Eta barruti honek duen egoera soziolinguistikoa eta, oro har, dituen ezaugarri eta berezitasunak kontuan izanik, lantaldeak erabaki du berariaz ondoko lan-ildoak aztertzea:

- Aisialdi-eremuan eragitea: kirol elkarteetan eta kiroldegiko jardueretan, bereziki.
- Euskalduntzeko baliabide eta aukerak zabaltzea. Hiriko errealitatearekin alderatuz, euskara ikasteko aukera urriagoa da barrutian.
- Erreferente kultural euskaldunak indartzea, besteak beste, auzoetako udako jaiak.
- Alor sozioekonomikoa lantzea (bereziki, merkataritza-gune handien kasuan).

Horrela, parte hartu duten eragile guztien artean, lan-ildo horiei erantzuteko ekintzak, arduradunak eta baliabideak proposatu dira eta Donostiako Euskararen Plan Estrategikoaren (D-AROA) ekintza planean (ikus eranskina) jaso dira, berariaz Ekialdeko barrutian bideratuko direla adieraziz. Hausnarketa prozesuan landutakoa [txosten](#) honetan jaso da.

8.2 Igeldo eta Añorga

Dagoeneko badira beste bi eremu geografiko Donostian berariazko lanketa behar dutela identifikatuta daudenak. Bata, Igeldo da eta, bestea, Añorga.

Lehenengoaren kasuan, Tokiko Entitate Txiki izendatu berri da. Estatus horrek eskumen propioak izateko ahalmena ematen dionez, hizkuntza politika da bere egin duen eskumenetako bat. Donostiako Planak eta Igeldokoak aurrera egin ahala, zubiak eta elkarlanak nola eraiki aztertzen joatea biderik eraginkorra izango da.

Añorgaren kasuan, berriz, Gipuzkoa Arigune proiektu pilotuaren barnean Añorga Arigune proiektu pilotua ari da garatzen Udaleko Euskara Zerbitzua añorgatar norbanako eta entitateetako ordezkariekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Taupa euskara elkarten federazioarekin eta Bagera Euskaltzaleen Elkartearekin. Proiektu honen baitan berriazko erronka eta lan-ildoak identifikatu dira eta horiei erantzuteko ekintzak bideratzen ari da lantalde hau eta, bereziki, añorgatarrak. Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategiko honen ekintza planean jasota dago proiektu pilotu hau garatzen joateko aurreikuspena.

9. PLANAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA

9.1 Zeharkakotasuna, koordinazioa eta lankidetzak

AROA elkarlanerako markoa da, erakunde eta eragile sozialen arteko lankidetzak sustatu nahi duena, eta nahi horri erantzuteko, markoan bertan zehazten den moduan, beharrezkoa da gobernantza eredu jakin bat, zeharkakotasunean eta parte hartze koordinatuan oinarritutakoa eta, era berean, tokian tokiko beharrei lekua egingo diena.

Eta Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa (D-AROA) gauzatzeko ere apustu egin da elkarrekin eta elkarlanean aurrera eramateko egiturak sendotu eta sortzeko.

Erakunde publikoek edota euskalgintzak egingo duten jardunarekin batera, beharrezkoa da gizartearen esparru guztietatik eraldatzea euskararen indarberritzea. Hizkuntza normalizazioan aurrera egiteko biderik eraginkorrena elkarlana dela erakutsi digu esperientziak eta, aurrera begira, gobernantza eredu berriak jorratzea eta ikertzea dagokigu erakunde publikoek, gizarte eragileek eta herritarrek eskutik bidea eginaz.

Erakunde publiko guztiek hartzen dute parte hizkuntzaren normalizazio prozesuan, bakoitzak bere mailan. Hizkuntza politikaren ardatzak zehaztea eta prozesua gidatzea erakunde publikoei dagokie eta kudeaketa mailan bakoitzak konpromisoak hartu behar ditu, bere eskumenak kontuan hartuz. Donostiako Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, berari dagozkion eskumenak kontuan izanik ekingo dio planaren inplementazioari, betiere, erakundearen arteko elkarlana eta koordinazioa bilatuz, bereziki, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendaritzarekin.

Ildo beretik, Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak eta auzoetako eragileak bidegile eta bidelagun izan dira aurreko Euskararen Plan Orokorra aurrera eramateko garaian. Bakoitzak bere errealitateko urratsak egin ditu euskararen erabilera aurrera egiteko. Aurrerantzean ere, Euskara Zerbitzuak modu koordinatuan lan egingo du eragile hauekin eta Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoaren helburuak auzoetako errealitateko hedatzeko eta egokitzeko eginkizun eta baliabide zehatzak eskainiko zaizkie.

Hauek izango dira elkarlanean, zeharkakotasunean eta koordinazioan oinarritutako gobernantza ereduak oinarri hartuz aurreikusten den planaren inplementazio eta jarraipenerako planteamendua:

DONOSTIAN EUSKARA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA

Egitura	Funtzioak	Osaera
Hizkuntza Normalizatzeko Batzorde Teknikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Donostiako Udal administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planen eta hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideen betetze-mailaren jarraipena egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Pertsonen kudeaketaren ardura duen zinegotzia - Pertsonen kudeaketaren zuzendaria - Euskara zinegotzia - Euskara Zerbitzuaren burua - Udal barruko euskararen normalizazioaren atalburua - Langileen 5 ordezkari: LAB, ELA, CCOO, ESAN, ERNE
Euskararen Kontseilu Sektoriala	<ul style="list-style-type: none"> - D-AROA, Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoaren jarraipena egitea eta planari ekarpenak egitea. - Aholkuak, informazioa, eztabaida, azterketa eta proposamenak bideratzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Udaleko ordezkari politikoak - Gizarte eragileak (euskalgintzako eragileak, ikastetxeak, ostalaritza, merkataritza, finantza erakundeak, kirol-elkarteak, aisialdi-elkarteak, kultura-elkarteak, euskaltegiak...)
D-AROAren Mahai teknikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Planaren jarraipena egitea. - Planari ekarpenak eta egokitzapenak egitea. - Urteko kudeaketa-planak proposatzea. - Planaren balorazioa egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskara Zerbitzuko teknikariak
Auzoetako Euskara Batzordeak	<ul style="list-style-type: none"> - Auzoetako egoera soziolinguistikoaren eta beharren arabera, Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoaren helburuak eta lan ildoak errealitate horietara egokitzea eta ekintzak inplementatzen joatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Donostiako auzoetako gizarte eragileak (une honetan 11 auzotan dauden osatutako euskara batzordeak) - Batzorde hauen koordinazioaz eta dinamizazioa bideratzeko Euskara Zerbitzuak esleipena egina dion eragilea (gaur egun Bagera Euskaltzaleen elkarte arduratzen da eginkizun honetaz)
Udaleko gainerako departamentuak	<ul style="list-style-type: none"> - Zeharkakotasunean oinarrituz, hizkuntza politika erakunde publikoek bere osotasunean egin behar dute. Udalak bere departamentu guztien bitartez egin behar du hizkuntza politika, ez bakarrik Euskara Zerbitzuaren bitartez. Eta horrela jasota dago dokumentu honi erantsita doan eta aurreikusitako ekintza guztiak jasotzen dituen taulan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Udaleko departamentu guztiak
Berariaz, geografikoki edo sektorialki sor daitezkeen lantaldeak	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektu jakinak garatzeko, esku-hartze sektorialak inplementatzeko edo, besteak beste, estrategikoak izan daitezkeen eragin eremuak zabaltzeko, berariaz sor daitezkeen lantaldeak. - Une honetan, Añorgan, Añorga Arigune proiektua aurrera eramateko adibidez, berariaz sortutako lantaldea ari da lanean eta Ekialdeko Barrutian, plan hau lurreratzeko prozesua bideratu da bertako eragileekin. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte eragileak - Erakunde Publikoak - Euskalgintza - Herritarrak
Hizkuntza politikan eskumenak dituzten gainerako erakunde publikoak: HPS eta GFA	<ul style="list-style-type: none"> - Udalekin - Hakoba teknikoak - Sor daitezkeen beste zenbait egitura, foro edo batzorde 	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza - Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendaritza - Euskara Zerbitzua - Beste erakunde edo eragileak

9.2 Genero berdintasuna zeharkako ardatz

Plan honek, bestalde, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bilatuko eta sustatuko du etengabe planetik abiatzen diren ekintza eta proposamenetan eta hizkuntzaren erabilerari dagokionez ere erabilera ez-sexista bermatuko da. Genero berdintasuna zeharkako ardatz gisa dauka Plan Estrategiko honek.

9.3 Plan bizia eta malgua

Hamar urterako markoan oinarritutako plan bizia izango da Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa. Gizartearen aldaketak eta egoera berriak kontuan izango dituen eta, sortzen diren beharren arabera egokitzeko malgutasuna izango duena. Urtez-urteko ekintza planetan gauzatzen joango da eta ekintza plan hauek bere aurrekontua eta bere giza baliabideen egitura izango dute aurreikusitakoa aurrera eramateko.

Dokumentu honi erantsi zaio 2026ko ekintza-plana eta dagokion aurrekontua. Helburua da, plan honetan hamar urteko ikuspegiarekin jasotzen direnak betetzen joateko urtez-urteko ekintza planetan baliabideak eta aurrekontu beharrak doitzen joatea eta kopurutan aurrera-urratsak egitea.

Urteroko jarraipen sistema izango duen arren, bost urte barru prozesuari buruzko hausnarketa eta egoeraren azterketa egingo da datozen bost urteetarako erronka berriak identifikatu eta planari behar diren egokitzapenak egiteko.

9.4 Jarraipenerako adierazleak

Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta aurreko lerroetan aipatutako erronka eta lan-ildoak erdiesteko bide onetik goazen ala ez jakiteko datuak beharko ditugu. Hori dela eta, plan estrategikoarekin batera, helburuen betetze-maila ezagutzeko 15 adierazle hartuko ditugu kontuan (taulan Donostia mailakoak jasotzen diren arren Ekialdeko Barrutiko mailakoak ere jasoko dira):

Adierazle estrategikoak	
Gobernantza	
1	Planaren lurreratzea auzoetara: auzoetako euskara batzordeek egindako ekintza kopurua
2	Gizarte-eragileek eta elkarlanean aritutako entitateek egindako planaren balorazioa: 3 + 3
3	Euskarazko hedabideen irismena: erabiltzaile-kopurua.
4	Hezkuntzako matrikulazio datuak (A,B,D) (%)
5	Planaren betetze-maila eta aurrekontuaren betetze-maila.
6	Planaren ebaluazio kualitatiboa
Jarrera eta motibazioa	
7	Hiritarren euskararekiko aldeko jarrera
Ezagutza eta gaitasuna	
8	Euskararen ulermena Donostian: euskaldun osoen %, euskaldun hartzaileen % eta erdaldunen %
9	Donostiako euskaldunek euskaraz egiteko duten erraztasuna.
10	Urtero udalaren dirulaguntzak lagundutako donostiarrak, euskaltegietan.
11	Euskara ikasi duten hiritar kopurua.
Erabilera eta elkarreragina	
12	Euskararen kale-erabilera Donostian
13	Etxeko erabilera
14	Erabilera euskaraz kirolean, haur eta gazteen artean (%)
15	Euskarazko kultura-eskaintza, kultura-eskaintza guztiarekiko.
16	Oinarrizko zerbitzua euskaraz eskaintzen duen establezimendu kopurua (%)
17	Udaleko langileen hizkuntza-eskakizunen egiaztapena (%)
18	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio udalari, ahoz (%)
19	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen (%)
20	Udaleko euskarazko atal kopurua eta langile kopurua

